

«Gizakiok kontraesankorrek gara, zalantzarik gabe ez legokeelako pentsamendurik»

ELKARRIZKETA

IRAITZ
URKULO

Felipe Juaristi Idazlea. 'Iraganik gabe' argitaratu du, gogoeta filosofikoari bide ematen dion gazteentzako polizia-eleberria

Felipe Juaristi (Azkoitia, 1957) prosa zein poesia lantzen dituen idazle emankorra da. Oraingoan, gazteei zuzendutako intrigazko eleberri labur bat aurkeztu du: 'Iraganik gabe' (Erein). Memoria galdu duen gizon bat da protagonista. Bere nortasunaren bilaketan murgilduta dagoela, polizia eta gaizkide ohiak atzetik izango ditu. Juaristiren obretan ohikoa denez, istorioak kutsu filosofiko nabarmena du; izan ere, liburuak giza identitateaz, oroimenaz eta iraganaren zamaz hausnartzeko aukera ematen du. **–Eleberri beltz bat idatzi nahi izan duzu? Ala gogoeta filosofikoa bideratzeko aitzakia bat baino ez da generoa?**

–Bai. Asmoa hasieratik eleberri beltz bat idaztea izan da. Saiatu naiz gordetzen eleberri beltz klasikoaren arauak: gaizkilea, poliziak, giro beltza... Baina idazten joan ahala, eleberriak bere neurri eta formak hartu ditu. Ikuspegia aldatu da eta gaizkilea ez da hain gaizkile. Giro beltza ez da hain beltza. Gogoeta filosofikoa ere badago, baina giza kondizioari buruzko ikuspegi poetikoa ere bai. Poesiak munstrorik itsusiena printzerik ederrena bilaka dezakeen bezala, poesiaren ikuspegiak gaizkilea ere ongile bihurtu dezake. Ongiari eta gaizkari buruzko gogoeta bat dago oinarrian.

–Estilo aldetik ahalegin berezia egin behar izan duzu gazteentzako testu aproposa sortzeko?

–Testu zuzena dela esango nuke. Esaldiak laburrak dira, eta pertsonaien arteko elkarriketak indar berezia hartzen du. Kapituluak ere gidoi moduan antolatuta daude, eta horrek guztiak irakurketa errazten du. Bada, dena dela, ahalegin berezia idazketan, prosa ederraz gainera, irakurterraza egitekoa, hain zuzen. Deskribapenak landu ditut batez ere, ahalik eta sinpleenak egite aldera. Izan ere, edozein hizkuntzatan deskribatzen zailenak barne paisaiak dira, etxe barrukoak.

–Nahiko protagonista pasiboa eta erabat otzana sortu duzu, une oro gainerako pertsonaien borondatearen menpe dagoena.

–Ebakuntzaren ondorioz memoria galdu duen pertsonaia da. Memoriarekin batera borondatea ere galdu du. Ez daki nor den eta ez daki zer egin. Erabakitze ahalmena galdu du. Ez da, beraz, beste pertsonak bezalakoa, ez duelako berez ezer egiten, besteek aginduta baino. Ez daki zer den gaizkia eta zer den ongia. Ez du kulparen zentzurik ere. Errugabea da, inozentea. Baina besteek, ingurukoek, gogoan dute zer izan den eta zer egin duen haiek bezalakoa zenean. Hor dago koska edo eleberriaren muina.

–Nor da Venezia?

–Venezia neska txikia da, afekturik gabe hazi egin dena. Amak abandonatu zuen, eta aitonak ez du edaterik ez kemenik berari laguntzeko. Eman ez dioten afektua bera panpinei, animaliei eta, azkenik, kalean aurkitu duen gizonari ematen saiatzen da. Ez du guztiz bereizten zer dagoen ongi eta zer dagoen gaizki. Inozentea da bera ere.

–Eleberriko pertsonaiak, hain ezberdinak izanik beraien artean, gizartearen beraren isla direla esango zenuke?

–Neurri batean, bai. Baina gizartean denok dugu aldatzeko gogoia. Denok dugu aldatzeko eskubidea eta, aukera emanaz gero, bestelakotu egiten gara. Gizartea oso da konplexua, eta ezin da erabat neurtu. Gaur badena, bihar ez da. **–Zalantzarik gabe bizitzeko pentsamendurik gabe bizitzea dela.**

–Ez da ohiko polizia-eleberria. Bukaera ere ez da ohikoa. Ohiko eleberrietan gaizkileak galtzaile ateratzen dira eta ongileak (poliziak, alegia), irabazle. Baina ez dakit nik gaur egun errealtate horren ispilulu den. Nik adierazi nahi izan dudana da denok ditugula gure kontraesanak, eta zalantzarik gabe bizitzea pentsamendurik gabe bizitzea dela.



Idazle azkoitiarra bere azken lana eskuan duela. :: JOSE USOZ

«Gogoeta filosofikoa ere badago, baina giza kondizioari buruzko ikuspegi poetikoa ere bai»

Erabaki bat hartzeko gogoeta egin beharra dago, une batez bederen, eta gero erabaki horren ondorioak onartu. Gaizkileak, eleberrian, gaizkile dira, ez naiz saiatu disimulatzen. Baina beren kontraesanak dituzte.

–Rousseauk bezala, zuk ere gizakiok berez onak gara eta gizarteak edo bizitzak berak bide okerretik jotze bultzatzen gaituela uste duzu?

–Nik uste dut gizakietan gehiago direla onak eta zin-

tzoak, gaiztoak baino. Izan ere, gaiztoak gehiago balira, mundua honezkero sunsittuta egongo litzateke. Ustedut gizarteak berak erakusten digula zer den ona eta zer den okerra. Gehienok saiatzen gara bide horretatik segitzen, baina ez denok. Gaizkileak badaude eta ez dago urrutira begiratu beharrik, baina badakite gaizki jotzen ari direla.

Nortasun bila

–Besteek gutaz duten irudiak definitzen gaitu?

–Besteek gutaz duten irudiak definitzen gaitu, eta baldintzatzen gaitu ez gutxitan. Gizartean bizi gara eta gizarteak bere arauak ditu, eta zigortzeko moduak ere bai. Gizarteari men egiten ez badiogu (ez dut esaten erabat, baina bai neurri batean), bakardadera eta marjinaltasunera kondenatuta gaude.

–Memoria zama bihurtu daiteke? Memoria faltak salba dezake protagonista?

–Memoria zama da batzuetan, mina ekartzen duelako; eta poza eragin dezake, une zoriotsuak ekartzen ditueanean. Memoriarik eza aringarri izan daiteke. Aspaldiko kontua da. Odisean kontaktzen da lotofagoen istorioa, memoria galtzen duten giza-kiena. Memoriarik ezak protagonista beste bat bihurtzen du. Baina bera da memoria galdu duen bakarra. Gainerakoek, ez. Eta gainerakoak egokitu egiten dira egoera berri- ra, alegia, memoria galdu duen gizonaren egoerara.

–Zure ustez, guztiok merezi dugu bigarren aukera bat, hau da, berriz hutsetik has- teko eskubidea? Posible da?

–Denok merezi dugu. Horretarako, ordea, denok aitortu beharko genuke zertan egin dugun huts edo zein izan den gure okerra, zein izan den gure krimena, halakorik gertatu bada. Eta, gainera, erantzun beharko genuke iragan-ean egindako horren aurrean. Azken finean, porrota aitortzea da kontua. Noizean behin hutsetik hasi beharko genuke denok. Ez da erraza, ordea.

–Eleberriaren helburua irakurleok giza izaeraz hausnartzea da?

–Bai. Helduentzako eleberria balitz, ez nioke hainbesteko garrantzia emango halako hausnarketari. Baina narratzi- oia berak eramaten du irakurle- a gogoetaren haritik amaierara. Gizakiok konplexuak gara adierazi nahi izan- dut; batzuetan munstro, eta beste batzuetan, aingeru.